



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO UDAL HILERRIETAKO (POLLOE, ALTZA ETA IGELDO) PANTEOIEN GARBIKETA- ETA MANTENTZE-ZERBITZUAK KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA (ENPLEGU-ZENTRO BEREZIENTZAKO BAINO EZ).

1. KONTRATUAREN XEDEA

Orri honetan eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Orrian xedatutakoaren arabera, Donostiako udal hilerrietako (Polloe, Altza eta Igeldo) panteoiak garbitu eta mantentzeko zerbitzua ematea izango da kontratuaren xedea.

2. GARBIKETA-ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZAK

Zerbitzuak Polloe, Altza eta Igeldoko udal hilerrietan eman beharko dira.

Zerbitzuak emango dituzten langileek lanerako arropa eraman beharko dute soinean, eta arropa hori enpresa kontratistak eman beharko die.

Garbiketen maiztasuna, edozein kasutan, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan panteoiak behar bezala edukitzeko bezain bestekoa izango da.

Nolanahi ere, garbiketak POLLOEK eskatuta egingo dira, eta eskaera gutxienez 24 orduko aurrerapenez egingo du.

3. LAN OROKORRAK

Azalpen orokor modura, eta zehaztasunetan sartu gabe, garbiketa- eta mantentze-zerbitzuetan lan hauek sartuko dira:

- Garbiketa sakona, presiopeko ura eta detergente espezifikoa erabilia.
- Amaieran eskuila eskuz pasatzea.
- Txori-zirinak garbitzea.
- Panteoiaren inguruan eta atzeko aldean berez jaio diren belar eta sasiak kentzea.
- Igeltserotza, margotze, errementaritza eta hilerrietako jarduerarekin lotutako bestelako lanei eragiten dieten mantentze-zerbitzuak.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

4. KONTSULTAK

DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK SAK argituko ditu garbiketa-zerbitzuei buruzko kontsultak, kontratuaren arduradunaren bitartez.